

2024ko ekaina



IZEN NEURGAITZAK: OHIKO AKATSAK

Izenen artean, badira zenbakarriak eta zenbakaitzak. Azken hauek, izen zenbakaitzak, neurgarriak edo neurgaitzak izan daitezke.

Izen neurgaitzez aritzean, intentsitateaz arituko gara, ezin baitira neurtu; hau da, ezin zaie zenbatzailerik ezarri. Hauen arten ditugu, adibidez: beroa, gogoa, sua, hotza, beldurra, lotsa, indarra... Izen hauen intentsitatea adierazteko izenondoak eta izenlagunak erabili behar ditugu: handia, txikia, gutxi asko, baxua, altua...

Gazteleraren eraginez, kalko okerrak eta gramatika akatsak egin ohi ditugu. Azter ditzagun ohiko akatsa hauek:

- Asko/gutxi eta handia/txikiak ez dute esanahi bera, kalkoz nahasten badira ere. Askok eta gutxik zenbat galdetzaileari erantzuten diote; eta handi/txikik nolakoa galdetzaileari.
- Gaztelaniaz “*hace mucho frío*” esaten da, eta baita “*tengo muchos amigos*” ere. “*Mucho*”-k, beraz, zenbat eta nolakoa galdetzaileei erantzuten die. Eredutzat hartuta, akatsak egin ohi ditugu maiz:



- **Atzo amaitu ziren herriko festak, eta pena asko eman zidan.*
- Atzo amaitu ziren herriko festak, eta pena handia eman zidan.



- **Bero bat pasa genuen!*
- Beroa handia pasa genuen!

- Kontuan hartu behar da intentsitate hauek adierazteko orduan, kontrako esanahiekin edo antonimoekin araua ez dela horren estua. Alegia, “hotz handiaren” aurkakoa ez da “hotz txikia”, “hotz gutxi” baizik.

- | | |
|----------------------------------|--------------------------|
| • ke handia/ke gutxi | • lan handia/lan gutxi |
| • maitasun handia/maitasun gutxi | • bero handia/bero gutxi |
| • beldur handia/berdur gutxi | • hotz handia/hotz gutxi |
| • lotsa handia/lotsa gutxi | • pena handia/pena gutxi |
| • gogo handia/gogo gutxi | |

- Horrekin lotuta, izen neurgaitzekin *zenbaterainoko, hainbesteko, norainoko...* moduko izenlagunak erabili behar ditugu eta ez *zenbat, hainbeste...*

- *Zenbat gose daukazu?
- Zenbaterainoko gosea daukazu?

- *Zenbat interes daukate?
- Zenbaterainoko interesa daukate?

- *Ez du hainbeste hotz egiten.
- Ez du hainbesteko hotzik egiten.



Ohiko erdarakadak



*** Langabeziari aurre ez egiteak pobrezia areagotzea suposatzen du.***



Langabeziari aurre ez egiteak pobrezia areagotzea dakar.



Suposatu: aditz honek uste izan, -koan egon esan nahi du. Gainerakoetan hobe da erabiltzea: demagun, izan, ekarri...



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



ATE HONEK ITXITA EGON BEHAR DU

Inguruko erdarek ez bezala, euskarak berea du ergatiboa, nork izen sintagmak daraman "-k" atzizki ergatiboa; eta beti da subjektua.

Erakusleak ere deklinatu behar ditugu, eta hauek dira NORK kasuan hartzen dituzten formak:

- hau: honek
- hori: horrek
- hura: hark

Zain dezagun euskara!